



Euskal Herriko Federalistak elkarteak –Ef- sortu genuenean, esan genuen gure helburu nagusienetako bat zela kultura federala eta horrekin lotutako balioak zabaltzea eta sakontzea. Horrek eskatzen du, besteak beste, mundu demokratikoan dauden adibide federalak ezagutzen joateko ekitaldiak antolatzea.

Gure Adierazpen Sortzailean esaten genuen guztiz beharrezkoa zela ezagutzea eta aztertzea herrialde federalen esperientziak, bereziki haien barruko askotarikotasuna babesteko, integrazioa bideratzeko eta egonkortasun politiko-demokratikoa bermatzeko trebetasunik handiena erakutsi duten herrialdeena. Beste batzuekin batera, Kanadako kasua aipatzen genuen.

Aipatu asmoari eta gure I. Biltzarrean onartu genuen Lan Planari bide emanez, bi ekitaldi egingo ditugu, bi mintzaldi-eztabaida, André Lecours Ottawako Unibertsitateko irakaslearekin, Bilbon bata eta Donostian bestea, EHUko Unibertsitateara egingo duen bisita aprobeztatuz.

André Lecours itzal handiko politologo quebecarra da, sistema federaletan aditua eta, bereziki, Kanadako sistema federalean. Horrekin batera, mugimendu nazionalisten azterketan jarri du bere arreta eta Euskal nazionalismoan bereziki: horren emaitzetako bat Nevada University Press-ek [argitaratutako Basque Nationalism and the Spanish State](#) izenburua duen liburua dago.

Aukera izango dugu bere bidez Kanadako sistema federalaren oinarriko ezaugarriak ezagutzeko, azken hamarkadetan sistema horrek izan duen bilakaera eta azken garaietan aurrean izan dituen erronkak nola kudeatu dituen jakiteko.

## **BILBON**

**IRAILAREN 4an, ASTEAZKENA - 19:00etan**

**ARETO NAGUSIA**

**ENPRESA IKASKETEN ESKOLA OHIA (UPV/EHU)**

(Elcano kalea, 21)



**André LECOURS (Ottawako Unibertsitateko irakaslea)**  
**Kanadako sistema federala: bilakaera eta erronkak**

## **DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN**

**IRAILAREN 6an, OSTIRALA -19:00etan**

**KOLDO MITXELENA KULTURUNEA**

(Urdaneta kalea, 9)